10.- ADJUDIKAZIORAKO LEHENTASUNAK BERDINKETA GERTATZEN DENEAN Kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, ondorengo irizpide sozialak ordenan aplikatuz ebatziko da berdinketa, eskaintzak aurkezteko epearen amaierako uneari erreferentzia eginez, betiere: - Ezintasunak dituzten langileen edo gizartetik baztertuak izateko egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa dutenak enpresa bakoitzaren langile- zerrendan; berdinketa badago, langileen zerrendan ezintasunak dituzten langile finko gehiena dituena hartuko da aintzat, edota inklusio bidean diren langileen kopuru handiena duena. - Enpresa bakoitzeko langileen zerrendan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena. - Enpresa bakoitzeko langile-zerrendan emakumezko langileen ehuneko handiena duena.	***10.- PREFERENCIAS DE ADJUDICACIÓN EN CASO DE EMPATES*** *Cuando tras la aplicación de los criterios de adjudicación, se produzca un empate entre dos o más ofertas, este se resolverá, mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:* *- Mayor porcentaje de personas trabajadoras con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de personas trabajadoras fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla.* *- Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.* *- Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.*

- Zozketa egingo da, aurreko irizpide horiek aplikatuta berdinketa desegiten ez bada.	*- El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.*
Berdinketa hausteko irizpideen egiaztagiriak berdinketa gertatzen denean aurkez ditzakete lizitatzaileek, ez aurretik.	*La documentación acreditativa de los criterios de desempate será aportada por las licitadoras en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.*
11. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ADJUDIKAZIOA	***11. APERTURA DE PROPOSICIONES Y ADJUDICACION***
Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du («A» gutun-azala). Hori egiteko Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira.	*Vencido el plazo de presentación de proposiciones, se procederá a clasificar la documentación recibida en tiempo y forma (sobre «A»), procediendo, para ello, como se señala en los artículos 81 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.*
Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du zein enpresak betetzen dituzten plegu hauetan finkatutako hautaketa-irizpideak, eta espresuki adieraziko du nortzuk izan diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak. Dena dela, eskaintza ekonomikoak jendaurreko egintzan irekitzen direnean irakurriko da guztien aurrean zerrenda hori.	*Una vez calificada la documentación presentada, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, se procederá a determinar las empresas que se ajustan a los criterios de selección de las mismas determinados en este pliego, con pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación, los rechazados y sobre las causas de su rechazo. En todo caso, dicha relación será leída públicamente en el acto de apertura pública de las ofertas económicas.*
Egintza horretan, onartutako enpresa lizitatzaileen «B» gutun-azala irekiko da, eta gutun-azalean sartutako agirien zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da.	*En el acto no público se procederá a la apertura del sobre «B» de las empresas licitadoras admitidas, dando lectura a la relación de los documentos aportados. A continuación, se dará por concluido el acto celebrado.*
Jarraian, «B» gutun-azaletako edukia bulego teknikoko arduradunari emango zaio,	*Posteriormente se remitirá el contenido de los sobres «B» para que la responsable de la*

formula bidez ebaluatzekoak ez diren adjudikazio-irizpideei buruzko txostena egin dezan.	*oficina técnica, emita informe en relación a los criterios de adjudicación no evaluables mediante fórmula.*
Eskatutako txostenak jaso ondoren Kontratazio-mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa lizitatzaile bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du.	*Recibidos los informes solicitados se constituirá la Mesa de Contratación, en acto no público, y valorará los informes y decidirá sobre la puntuación a asignar a cada empresa licitadora.*
Kontratazio-mahaiak, JENDAURREKO EGINTZAN elkartuta, enpresa lizitatzaile bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, «C» gutun-azalak ireki, eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira. «C» gutun-azala irekitzeko jendaurreko egintza Orioko Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako toki eta egunean izango da. Kontratazio-mahaiari beharrezko iruditzen bazaio, «C» gutun-azalak udal-teknikariei bidaltzea erabaki dezake, haiek azter ditzaten eta formula aritmetikoen bitartez ebaluatzekoak diren irizpideei buruzko txostena egin dezaten. Gero, Kontratazio-mahaiak kontratuaren adjudikazio-proposamena aurkeztuko dio udalbatzarrari.	*La Mesa de Contratación, reunida en ACTO PÚBLICO, comunicará el resultado de la puntuación obtenida por cada empresa licitadora, e informará sobre las proposiciones admitidas, de las rechazadas y causa o causas de inadmisión, procediéndose a continuación a la apertura del Sobre «C» y a la lectura de las ofertas económicas contenidas en las mismas. El acto público de apertura de los sobres «C» se celebrará en el lugar y fechas indicados en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Orio. Si la Mesa de Contratación lo considera necesario acordará la remisión de los sobres «C» para que sean analizados por los técnicos municipales y emitan informe respecto de los criterios evaluables mediante fórmulas aritméticas. La Mesa de Contratación elevará la propuesta de adjudicación del contrato al Pleno Municipal.*
12.- DOKUMENTAZIOA ESKATZEA	***12.- REQUERIMIENTO DE DOCUMENTACIÓN***
Eskaintza onena egin duen lizitatzaileari eskaria egingo dio kontratazio-organoak, hamar laneguneko epean (eskaria jasotzen duen egunaren hurrengotik zenbatzen hasita) SPKLko 140.1 artikuluan aipatzen dituen aurretiazko baldintzak betetzen dituela justifikatzen duten agiriak aurkez ditzan; horrez gain, kontratua gauzatzeko gorde edo atxiki beharreko bitartekoak egiaz eskura dituela erakutsi beharko du agiri	*El órgano de contratación requerirá al licitador que haya presentado la mejor oferta para que, dentro del plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos previos a que hace referencia el artículo 140.1 de la LCSP, así como de disponer efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a*

bidez, 76.2 artikuluaren arabera eta dagokion behin betiko bermea eratu duela ere erakutsi beharko du. (baldintza-agiri hauetako 6. klausulan adierazitako agiriak aurkeztu beharko ditu);	*la ejecución del contrato conforme al artículo 76.2 y de haber constituido la garantía definitiva que sea procedente. Se deberán aportar los documentos relacionados en la cláusula 6 del presente pliego.*
Ildo horretatik, polizaren kopia aurkeztu beharko du, bai eta erantzukizun zibileko poliza baten kontratazioaren primaren ordainagiria ere, 300.000 €-ko gutxieneko estaldura duena, zuzenean instalazioek sor ditzaketen istripu, kalte eta galerak edota zerbitzua ematean egiten diren lanen ondorioz sor daitezkeenak estaltzeko.	*Del mismo modo, deberá aportar copia de la póliza y justificante pago de la prima de la contratación de una póliza de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 300.000,00 € de todos los accidentes, daños y perjuicios que puedan ocurrir, ocasionados directamente por las instalaciones o por los trabajos que se realicen como consecuencia del a prestación del servicio.*
Eskaera adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza kendu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarri den aurrekontuaren (BEZ gabe) ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, zigor modura; hasiera batean, behin-behineko bermearen bidez egingo da hori, halakorik eratu bada.	*De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía provisional, si se hubiera constituido.*
Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ildotik, hurrengo lizitatzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio, eskaintzen sailkapenean zer ordenatan gelditu diren kontuan hartuta.	*En el supuesto señalado en el párrafo anterior, se procederá a recabar la misma documentación a la licitadora siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.*
13.- BEHIN BETIKO BERMEA	***13.- GARANTÍA DEFINITIVA***
Hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, kontratuaren adjudikazioduna den enpresa behartuta dago 600 euroko behin betiko bermea jartzera (BEZ gabe).	*La empresa adjudicataria del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligada a constituir una garantía definitiva por importe de 600 euros.*
SPKLko 108. artikuluan zehaztutako bitartekoak erabiliz eratu ahal izango da behin betiko bermea, eskudirutan eratzen direnak salbuespentzat hartuta; kasu horretan, Orioko Udalaren kontu	*La garantía definitiva podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la LCSP, con la salvedad de que las constituidas en metálico deberán de ser ingresadas en cualquiera de las cuentas*

korronteetako edozeinetan sartu beharko du zenbateko hori.	*corrientes del Ayuntamiento de Orio.*
SPKk 110. artikuluan biltzen dituen kontzeptuei erantzungo die berme horrek, eta berme hori osorik edo zati bat itzultzeko, Lege horren 111. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, bermearen epea amaitzen denean eta adjudikaziodunak kontratuzko betebehar guztiak bete ondoren.	*Esta garantía responderá a los conceptos incluidos en el artículo 110 de la LCSP y su devolución, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la referida Ley, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por la empresa adjudicataria todas sus obligaciones contractuales.*
14.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA	***14.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO***
Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan adjudikatuko du kontratua.	*Recibida la documentación solicitada, el órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación.*
Ezin izango da lizitazioa adjudikatu gabe utzi inoiz, baldin eta agirian zehaztutako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik badago.	*En ningún caso podrá declararse desierta una licitación cuando exija alguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en el pliego.*
Adjudikazioa arrazoitu egin beharko da, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, 15 eguneko epean.	*La adjudicación deberá ser motivada, se notificará a los candidatos o licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de 15 días.*
Adjudikazioa egiteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzeko lehen ekitalditik kontatzen hasita.	*El plazo máximo para efectuar la adjudicación será de 2 meses a contar desde el primer acto de apertura de las proposiciones.*
15.- KONTRATUA GAUZATZEA	***15.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO***
Kontratua formalizazioaren bidez perfekzionatuko da.	*El contrato se perfeccionará con su formalización.*
Lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera 15 laneguneko epean, administrazio-agiri batean formalizatuko da kontratua, eta dokumentu hori titulu baliagarria izango da	*La formalización del contrato en documento administrativo se efectuará no más tarde de los 15 días hábiles siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos; constituyendo dicho*

edozein erregistro publikotan aurkezteko.	*documento título suficiente para acceder a cualquier registro público.*
Kontratistak kontratua eskritura publiko modura jasotzea eska dezake, baina, kasu horretan, gastu horiek bere gain hartuko ditu.	*La parte contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.*
Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatu adierazitako epean, lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren (BEZ gabe) ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, zigor modura.	*Cuando por causas imputables a la adjudicataria no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad.*
16.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZAK ETA OBLIGAZIOAK	***16.- CONDICIONES Y OBLIGACIONES DE EJECUCIÓN***
16.1.- Baldintza eta betebehar orokorrak	*16.1.- Condiciones y obligaciones generales*
1.- Baldintza-agiri honetan xedatutako klausulei eta arau teknikoen agiriari hertsiki lotuta gauzatuko da kontratua, bai eta kontratuaren ardura duen pertsonak kontratistari interpretaziorako emandako jarraibideen arabera ere.	*1.- El contrato se ejecutará con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en este pliego, al pliego de prescripciones técnicas y de acuerdo a las instrucciones que para su interpretación, diera a la contratista la persona responsable del contrato.*
2.- Adjudikazioduna da zerbitzuaren xede diren prestazioen kalitatearen erantzule, bai eta administrazioarentzako edo hirugarrenentzako kalteen erantzule ere, baldin eta kontratua gauzatzean ez- egiteek, hutsegiteek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek eragin badituzte kalte horiek.	*2.- La adjudicataria será responsable de la calidad de las prestaciones objeto de servicio, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceras personas de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.*
3.- Adjudikaziodunak arretazko zerbitzua eman behar du beti. Irratiak edo antzeko tresnak erabili behar baditu, graduatu egin beharko ditu, erabiltzaileen eta, oro har, jendearen erosotasunaren arabera, betiere gizalege arauen barruan eta indarrean den legerian ezarritako mugen baitan.	*3.- Se deberá mantener un servicio esmerado. El uso de radios o instrumentos similares deberá graduarse por la comodidad de las personas usuarias y público en general, dentro de las normas de urbanidad, salvaguardando en todo caso, los límites establecidos en la legislación vigente.*
4.- Adjudikaziodunak zergadun modura alta	*4.- La contratista deberá estar dada de alta*

emanda egon behar du Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta bere zerga- betebeharrak kitatuta edukiko ditu, baita Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarena ere. Indarreko lan-araudia eta Gizarte Segurantzakoa beteko du, bere alderdi guztietan. Kontratatutako eta zerbitzuari atxikitako langileek ez dute inolako lan harremanik izango Orioko Udalarekin.	*como contribuyente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y al corriente de sus obligaciones tributarias, incluido el Impuesto sobre Actividades Económicas. Cumplir la normativa laboral y de Seguridad Social vigente en todos sus aspectos. El personal que contrate y adscriba al servicio no guardará relación laboral alguna con el Ayuntamiento de Orio.*
Adjudikaziodunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.	*La contratista está obligada al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de Seguridad e Higiene en el trabajo, quedando la Administración exonerada de responsabilidad por este incumplimiento.*
Zerbitzua ematen ari diren langileak identifikatuta egon behar dute une oro. Udalak eskatuz gero, kontratuaren indarraldian edozein unetan egin dezakeena, adjudikazioduna behartuta egongo da bere langileen lan-kontratuak eta Gizarte Segurantzako afiliazio eta kotizazio agiriak aurkeztera. Hori horrela, agiri horien kopiak izango dituzte zentroan bertan.	*El personal que esté prestando el servicio deberá estar identificado en todo momento. A requerimiento del Ayuntamiento, que podrá hacerlo en cualquier momento durante la vigencia del contrato, la adjudicataria estará obligada a la entrega de los contratos de trabajo y los documentos de afiliación y cotización a la Seguridad Social del personal empleado. Por ello, dispondrán de una copia de dichos documentos en el mismo centro.*
5.- Adjudikaziodunak kontratuaren barruan sortzen diren hondakinak era zuzenean kudeatu beharko ditu.	*5.- La empresa adjudicataria gestionará los residuos generados durante la ejecución del contrato y garantizará su correcta gestión.*
Zaborra gaika jaso beharko da horrela bereizita: papera eta kartoia, ontziak (plastikoak, latak, tetrabrikak, porexpana), beira, hondakin arriskutsuak eta errefusa.	*Los residuos generados serán recogidos selectivamente en las siguientes fracciones: papel y cartón, envases (plásticos, latas, tetra-bricks, porexpan), vidrio, residuos peligrosos y rechazo.*
Adjudikaziodunak kaleko gaikako edukiontzietan bota beharko du zaborra eta hondakin arriskutsuak, aldiz, baimendutako kudeatzaile baten bitartez (olio erabilia batik bat). Kontratuaren hasieran baimendutako	*La adjudicataria depositará los residuos en los contenedores urbanos de recogida selectiva si los residuos son asimilables a estos o a través de un/a gestor/a autorizado/a en caso de residuos peligrosos (básicamente aceites*

kudeatzaileen zerrenda aurkeztu beharko du.	*usados). Al inicio del contrato la adjudicataria presentará las referencias de gestores/as autorizados/as a los que entregará sus residuos peligrosos.*
Zabor bilketa zerbitzuan sortutako gastuak adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu.	*Los gastos generados en la recogida de residuos serán a cuenta de la empresa licitadora.*
6.- Adjudikaziodunak funtzionamendu onean eta kontserbazio-egoera hobe ezinean edukiko ditu ustiatzen dituen lokalak eta bertako instalazioak.	*6.- La adjudicataria deberá mantener los locales objeto de explotación y sus instalaciones en buen uso de funcionamiento y en perfecto estado de conservación.*
7.- Adjudikaziodunak ezingo du obrarik egin, Orioko Udalak horretarako baimenik eman gabe.	*7.- No se podrán realizar obras sin la correspondiente autorización del Ayuntamiento de Orio.*
8.- Adjudikaziodunak, inolako ordainketa gehigarririk eskatu gabe, kontratuan zehazten diren zerbitzuak modu egokian garatu eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola, lan edo informazio bileretara joatea.	*8.- La adjudicataria deberá prestar, sin derecho de pago suplementario, los servicios que se estimen necesarios para el correcto desarrollo y cumplimientos del contrato, tales como asistencia a reuniones de trabajo o informativas*
9.- Pertsona edo enpresa kontratistak ekipo eta giza baliabide egokiekin eskaini behar ditu zerbitzuak, eta sortzen diren premiei erantzun behar die une oro. Proposamenean aipatutako baliabide teknikoak erabiliko ditu eta, oro har, lanak burutzeko behar diren guztiak. Prestazioaren hasieran, eskatutako hizkuntza-betebeharrak bete beharko dituzte langileek, eta elikagaien manipulatzaile titulua eduki beharko dute hori eska daitekeenean; hortaz, kontratatu baino lehen betebehar horiek betetzen dituela egiaztatu beharko du (dela ziurtagiria aurkeztuta, dela Udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarrizketa bat eginda, eskatutako maila betetzen duela egiaztatzeko titulurik ez badu).	*9.- La persona o empresa contratista deberá prestar el servicio con el equipo y medios personales adecuados, respondiendo en todo momento a las necesidades que se deriven de la marcha de los trabajos. Aportará también los medios técnicos incluidos en su propuesta y, en general, cuantos se precisen para la buena ejecución de los trabajos. Al inicio de la prestación el personal deberá cumplir con los requisitos lingüísticos exigidos así como poseer el título de manipulador/a de alimentos en los casos en los que sea exigible, por lo que con anterioridad a su contratación deberá acreditar el cumplimiento de dichos requisitos (bien aportando la documentación acreditativa como realizando una entrevista con el servicio de euskera del Ayuntamiento, en el caso de que no se disponga de título para*

	acreditar el cumplimiento del nivel exigido).
10.- Kontratistak, edozein kasutan, erantzukizun zibileko aseguru bat eduki beharko du, kalteengatik izan dezakeen erantzukizuna estaltzeko. Ezbeharragatik 300.000 euroko gutxieneko estaldura izango du. Enpresa adjudikaziodunak kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, baita kontratua sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere.	*10.- La contratista deberá disponer en cualquier caso de un seguro de responsabilidad civil que cubra su posible responsabilidad por daños con una cobertura mínima de 300.000 euros por siniestro. La empresa adjudicataria deberá aportar copia de dicho contrato, así como copia del último recibo abonado con carácter previo a la firma del contrato.*
Nolanahi ere, kontratistak ordainduko ditu aseguru-polizan ezarritako mugak gainditzen dituzten kalte eta galerak, bai eta horiek estaltzen ez dituzten ondasun eta arriskuenak ere.	*En todo caso, serán soportados por la contratista los daños y perjuicios en lo que superen los límites que se establezcan en las pólizas de seguro; así como en los bienes y riesgos no cubiertos por las mismas.*
11.- Administrazioak zehaztuko du kontratistak eginiko prestazioa hura egikaritzeko eta betetzeko ezarritako baldintzetara egokitzen den, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak egin eta horiek hartzean antzemandako akatsak konpontzeko eska diezaioke. Eginiko lanak ez badira bat etortzen kontratatutako prestazioarekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo okerrengatik, ukatu egin ahal izango du, eta ez du betebeharrik izango ordaintzeko, edo eskubidea izango du, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko.	*11.- La Administración determinará si la prestación realizada por la contratista se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento, requiriendo, en su caso, la realización de las prestaciones contratadas y la subsanación de los defectos observados con ocasión de su recepción. Si los trabajos efectuados no se adecuan a la prestación contratada, como consecuencia de vicios o defectos imputables a la contratista, podrá rechazar la misma quedando exenta de la obligación de pago o teniendo derecho, en su caso, a la recuperación del precio satisfecho.*
Edozein unetan baimena emango du Udalak zerbitzuaren kudeaketaren gaineko ikuskaritza teknikoa eta ekonomikoa egiteko, prestazioaren funtzionamendua agirian ezarrikora eta indarrean dauden lege-xedapenetara egokitzen den egiaztatzeko.	*Deberá permitir en cualquier momento la inspección técnica y económica del Ayuntamiento sobre la gestión del servicio, a fin de comprobar que su funcionamiento se ajusta a lo prevenido en el Pliego y a las disposiciones legales vigentes.*
12.- Kontratu hau egikarituko duten langileei	*12.- En relación con al personal trabajador*

dagokienez, enpresa kontratistak enpresari orori dagokion zuzendaritza- boterea benetan, eraginkortasunez eta etengabe gauzatzeko betebeharra hartzen du. Bereziki, honako hauek onartuko ditu: soldaten negoziazioa eta ordainketa; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapena; laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko xedapenak; diziplina-zigorrak ezartzea (hala dagokionean); Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak (besteak beste, kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea); bai eta langilearen eta enplegu-emailearen arteko kontratu-harremanaren ondoriozko beste eskubide eta betebehar guztiak ere.	*destinado a la ejecución de este contrato, la empresa contratista asume la obligación de ejercer de modo real, efectivo y continuo el poder de dirección inherente a toda empresaria. En particular, asumirá la negociación y pago de los salarios, la concesión de permisos, licencias y vacaciones, las sustituciones, las obligaciones legales en materia de prevención de riesgos laborales, la imposición – cuando proceda-de sanciones disciplinarias, las obligaciones en materia de Seguridad Social, incluido el abono de cotizaciones y el pago de prestaciones, así como cuantos derechos y obligaciones se deriven de la relación contractual entre empleado/a y empleador/a.*
16.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak	*16.2.- Condiciones especiales de ejecución del contrato*
Kontratua gauzatzeko nahitaez bete beharreko baldintza bereziak dira honako hauek:	*Son obligaciones especiales de ejecución las que se detallan a continuación:*
16.2.1.- Lan-baldintzak, baldintza sozialak eta ingurumena babesteko baldintzak	*16.2.1.- Condiciones laborales, sociales y de protección del medio ambiente*
1.- Lan-arloan, gizarte-segurantzan, segurtasunean, lan-osasunean edota ingurumenaren babesean indarrean dauden eta aplikagarriak diren lege- xedapenak, araudiak eta xedapen konbentzionalak betetzera behartuta dago kontratista, bai eta honako baldintza-agiri honetan xedatzen direnak betetzera ere.	*1.- La contratista está obligada al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de seguridad social, de seguridad y salud en el trabajo y de protección del medio ambiente, así como aquellas que se establezcan en estos pliegos.*
2.- Enpresa kontratistaren jarduera zer esparrutan kokatzen den, sektore horretako maila behereneko azken itun kolektiboak ezarritako lan-baldintzak aplikatuko dizkio kontratistak kontratua gauzatzeaz arduratuko den langileen multzoari, nahiz eta indarrean dauden beste enpresa-itun edo	*2.- La contratista aplicará a la plantilla que ejecutará el contrato las condiciones de trabajo establecidas por el último convenio colectivo sectorial del ámbito más inferior existente en el sector en el que encuadra la actividad de la empresa contratista, sin perjuicio de otros convenios o pactos de*

hitzarmen batzuk ere aplika daitezkeen, han xedatutakoa hobetzeko.	*empresa que estuvieran en vigor y mejoren lo dispuesto en aquel.*
3.- Kontratua gauzatuko den aldi horretan guztian, enpresa kontratista behartuta dago kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzei eustera, aplikagarri den hitzarmen kolektiboa kontuan hartuta, eta ezin izango ditu baldintza horiek okertu, alde batera utzita gerora hitzarmen horrek bere indarra galtzeko aukera, hitzarmen kolektiboen indarraldia amaitzeko legezko aurreikuspenak edo aurreikuspen konbentzionalak aplikatuta. Betebehar hori betea dela ulertuko da, indarraldia galtzen badu ere galtzeko une horren aurretik justu lan-baldintza horiei eusten bazaie. Dena den, lan-baldintzei eusteko betebehar hori betetzat hartuko da, baldin eta enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren artean lortutako adostasunez horiek aldatu badira ere, nahiz eta inoiz ezin duten izan soldatek aplikagarria den sektoreko hitzarmen kolektiboan ezarritakoa baino baxuagoak. Kontratista behartuta dago kontratazio- organoari baldintza horiek egiaztatzeko eskatzen zaion informazio edo dokumentazio oro ematera.	*3.- Durante todo el periodo de ejecución del contrato, la empresa contratista está obligada a mantener las condiciones de trabajo del personal adscrito al contrato en función del convenio colectivo que resulte de aplicación, no empeorando las mismas; y ello con independencia de que tal convenio pueda posteriormente perder su vigencia en aplicación de las previsiones legales o convencionales sobre finalización de la vigencia de los convenios colectivos. La obligación se entenderá cumplida si se mantienen las condiciones laborales vigentes en el momento inmediatamente anterior a aquel en que, en su caso, se produzca la pérdida de vigencia. En todo caso, se entenderá igualmente cumplida la obligación del mantenimiento de las condiciones laborales si estas hubieran variado por acuerdo alcanzado entre la empresa contratista y la representación de las personas trabajadoras, si bien, en ningún caso las condiciones salariales pueden ser inferiores a las establecidas en el convenio colectivo sectorial aplicable. La contratista vendrá obligada a facilitar al órgano de contratación cualquier información o documentación que le sea requerida para acreditar este extremo.*
4.- Kontratuaren xede den jardueraz arduratuko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zein den adierazi beharko du adjudikaziodunak. Horretarako, kontratua adjudikatu ondoren kontratu horri atxikitako langileei aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruzko informazio guztia emateko betebeharra du.	*4.- La adjudicataria deberá indicar el convenio colectivo que será de aplicación al personal que realice la actividad objeto del contrato. A tal efecto tendrá la obligación de facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado, se apliquen efectivamente al personal adscrito a dicho contrato.*
5.- Kontratuaren xede den jarduerak garatzeaz arduratuko den langileen multzoari	*5.- La información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable*

enpresa adjudikaziodunaren esanetan aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa zein den jasoko da adjudikazioaren ebazpenean, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.	*al personal que realice la actividad objeto del contrato se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante.*
6.- Kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzak aldatu egiten badira, eta adjudikazioaren unean aplikagarri zen hitzarmen kolektiboak xedatutakoari eragiten badio horrek, aurrez kontratazio-organoari eman beharko zaio horren berri. Negoziazioa justifikatzen duen dokumentazioa bildu beharko du jakinarazpen horrek, bai eta lan-baldintza berrien edukia eta kontratuaren kostuen berehalako eta etorkizuneko eragin ekonomikoa ere.	*6.- Cualquier modificación en las condiciones laborales del personal adscrito, que afecte a las establecidas por el convenio colectivo aplicable en el momento de la adjudicación, deberá ser comunicada previamente al órgano de contratación. La comunicación deberá contener la documentación justificativa de la negociación y el contenido de las nuevas condiciones laborales y su repercusión económica inmediata y futura en la estructura de costes del contrato.*
7.- Azpikontratazio-kasuan, enpresa azpikontratistak klausula honetan xedatutakoa bete beharko du, ildo beretik. Enpresa kontratistak azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, azpikontratazioaren xede diren langileen afiliazioa eta gizarte-segurantzako alta egiaztatuko ditu, eta kontratazio- organoari jakinaraziko dio.	*7.- En caso de subcontratación, la empresa subcontratista deberá igualmente cumplir con lo dispuesto en esta cláusula. La empresa contratista comprobará, con carácter previo al inicio de la actividad subcontratada, la afiliación y el alta en la seguridad social de las personas trabajadoras de las empresas con las cuales subcontrate y lo comunicará al órgano de contratación.*
8.- Klausula honen bidez onartutako betebeharrak betetzen ez baditu enpresa kontratistak eta, horren ondorioz, erakunde kontratatzailea ez-betetze horrek eragindako ondorio ekonomikoak onartzera behartuko balute, kontratistari eragingo diote ondorio horiek, eta, xede horretarako, administrazio kontratatzaileak ordaindutako kopuruak erabat berreskuratu arte egokiak eta komenigarriak izan daitezkeen ekintza administratibo edo judizialak garatzeko aukera izango du.	*8.- Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada a asumir las consecuencias económicas que de aquel se derivan, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas.*

16.2.2.- Kontratua gauzatzeko atxikitako langileei dagozkien baldintzak	*16.2.2.- Condiciones relativas al personal afecto a la ejecución del contrato*
1.- Adjudikaziodun izateko proposatutako enpresak, kontratatutako jarduerari ekin aurretik, kontratu hau zer langileren bidez gauzatuko den zehaztu beharko du, eta zerrenda horretako langileen alta eta gizarte-segurantzako afiliazioa egiaztatu beharko ditu.	*1.- La empresa propuesta como adjudicataria, con carácter previo al inicio de la actividad contratada debe aportar la relación del personal que destinará a la ejecución del contrato y deberá acreditar su alta y afiliación en la seguridad social.*
Horrez gain, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, data horretan kontratua gauzatzeaz arduratuko diren pertsonak kontratatuta ez dituela esanez; eta horien guztien afiliazioa eta alta egiaztatuko duela, kontratatzen dituenean eta kontratatutako jarduera hasi baino lehenago beti.	*Alternativamente, debe aportar una declaración responsable por donde declare no tener contratadas a esa fecha las personas que se ocuparán en la ejecución del contrato y que acreditará la afiliación y alta de todas ellas cuando las haya contratado y siempre con carácter previo al inicio de la actividad contratada.*
2.- Enpresak langile berriak, kontratuaren xedeari adjudikatuko zaizkionak, kontratatzen dituenean, behartuta dago erakunde kontratatzaileari honako informazio eta agiri hauek ematera: - Gizarte-segurantzako afiliazioa eta alta. - Kontratu-modalitatea, kontratuaren xedea, lanbide-kategoria edo taldea, eta lanaldia. - Urteko soldata gordina (ordainsariaren kontzeptuen arabera banakatuta). - Hala dagokionean, aplikagarria den hitzarmen kolektiboa eta aplikagarriak diren indarreko itunak. - Hala dagokionean, gaikuntza adierazteko ikasketen titulazioa.	*2.- Cuando la empresa contrate a nuevo personal, que vaya a adscribir al objeto del contrato, estará obligada a facilitar a la entidad contratante la siguiente información y documentación:* *- Afiliación y alta en la seguridad social.* *- Modalidad contractual, objeto del contrato, categoría o grupo profesional y jornada.* *- Salario bruto anual (desglosado por conceptos retributivos).* *- En su caso, convenio colectivo aplicable y pactos en vigor aplicables.* *- Cuando proceda, titulación académica habilitante.*
3-. Enpresa kontratistak, hilero, kontratuari atxikitako langile guztien eta hari lotutako gainerako pertsona fisiko eta juridiko guztien zerrenda igorriko dio kontratuaren ardura duen pertsonari; horrez gain, langileei soldata ordaindu zaiela erakusten duten	*3-. La empresa contratista remitirá mensualmente a la persona responsable del contrato la relación de todo el personal afecto al contrato y de las demás personas físicas y jurídicas vinculadas al mismo, así como la documentación justificativa del pago de*

ordainagiriak eta gizarte- segurantzako kuotei dagozkienak ere igorriko dizkio.	*salarios del personal y de las cuotas a la seguridad social.*
4- Kontratua adierazitako baldintzetan betetzen ari dela egiaztatzeko, langileei buruz beharrezkoa eta ezinbestekoa den informazioa soilik eskuratu ahal izango du kontratazio-organoak, gehiegikeriarik gabe eta datuen kalitatearen printzipioari egokituta; dena den, datuak babesteaz legediaren arabera bete beharreko printzipio guztiak beteko dira.	*4- Para comprobar que el contrato se está cumpliendo en sus propios términos, el órgano de contratación únicamente podrá acceder a la información personal que sea necesaria y pertinente, no excesiva y adecuada al principio de calidad de los datos, observando en todo caso los principios exigidos por la legislación en materia de protección de datos.*
5.- Klausula honen arabera enpresa kontratistak hartutako betebeharrak betetzen ez baditu eta, horren ondorioz, erakunde kontratatzailea ez-betetze horrek eragindako ondorio ekonomikoak onartzera kondenatzen badute, kontratistari eragingo diote ondorio horiek, eta, xede horretarako, administrazio kontratatzaileak ordaindutako kopuruak erabat berreskuratu arte egokiak eta komenigarriak izan daitezkeen ekintza administratibo edo judizialak garatzeko aukera izango du.	*5.- Si a consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada a asumir las consecuencias económicas que de aquél se derivan, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas.*
16.2.3.- Kontratua gauzatzean zaindu beharreko hizkuntza-baldintzak	*16.2.3.- Condiciones lingüísticas de ejecución*
Kontratu honek bete beharra dauka bi hizkuntza ofizialen araubidea, EAEko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria, eta euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua; horien artean dauden, besteak beste, euskararen erabilera normalizatzeko Orioko Udalaren udal-ordenantza eta udal horren hizkuntza-irizpideak, euskaren erabilera- planaren esparruan onartutakoak.	*Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre las que están la ordenanza municipal para la normalización del uso del euskera y los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento de Orio en el marco del plan de uso del euskera.*
Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal	*El Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que*

Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan, euskararen erabilerarako normalizazio-planek bildu beharreko zehaztapenak jasotzen ditu, besteak beste, hauxe: «18 d) Kontratazio- arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma daitezen».	*se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su artículo 18 establece las determinaciones que los planes de normalización del uso del euskera deben recoger, entre ellas la siguiente: «18 d) Medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las tendentes a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con la persona usuaria y se ejecuten por terceras partes sean prestados a la ciudadanía en condiciones lingüísticas similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente».*
Hirugarrenak edo erabiltzaileak aukeratzen duen hizkuntza erabili behar da kontratua betetzen duen enpresaren eta kontratua betetzearen ondorioz harekin harremanetan jartzen diren pertsonen edo erabiltzaileen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioan. Hirugarrenek edo erabiltzaileek ez badute berariaz aukeratzen, enpresa adjudikaziodunak pertsona fisikoei eta juridikoei helarazten dizkien nolanahiko jakinarazpenek eta adierazpenek bi hizkuntza ofizialetan egon behar dute, baita fakturek eta beste zirkulazio-dokumentu batzuek ere. Herritarrek noiznahi erabil dezakete hizkuntza aukeratzeko eskubidea, eta hizkuntza ofizial bakarra erabiltzeko eska dezakete.	*La lengua utilizada en la comunicación, tanto oral como escrita, entre la empresa encargada de la ejecución y las personas usuarias o terceras con las que haya de relacionarse en ejecución del contrato será aquélla que elija la usuaria o tercera parte, en cada caso. Cuando no conste expresamente opción alguna, las notificaciones y comunicaciones de todo tipo que la empresa encargada de la adjudicación dirija a personas físicas y jurídicas se realizarán en las dos lenguas oficiales, incluyendo las facturas y otros documentos de tráfico, sin perjuicio de que en cualquier momento la ciudadanía pueda ejercer su derecho a la opción de lengua y pueda demandar el uso de una sola de las lenguas oficiales.*
Administrazioarekiko harremanari dagokionez, enpresa adjudikaziodunak administrazio kontratatzaileak aplikatzen diren arau linguistikoen arabera jokatuko du kontratuaren xede diren zeregin guztietan; horregatik, enpresaren eta administrazioaren arteko ahozko nahiz idatzizko harreman guztiak administrazioaren laneko hizkuntzan egingo dira, hau da, euskaraz.	*En lo que se refiere a la relación con la administración, la empresa adjudicataria actuará de conformidad con las normas lingüísticas que de hecho se apliquen en la administración contratante, en todos los cometidos objeto del contrato; por ello, las relaciones tanto verbales como escritas de la empresa con la administración se ajustarán a la lengua de trabajo de ésta última, es decir, al euskera.*

16.2.4.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko baldintzak	*16.2.4.- Condiciones en materia de igualdad de mujeres y hombres*
Enpresa adjudikaziodunak, kontratua gauzatzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan guztietan: enpleguaren eskuragarritasunean, langileen sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanegunaren iraupen eta antolamenduan, eta, oro har, kontratu honen gauzatzeari lotuta dauden langileei bizimodu pertsonala, familiarra eta lana uztartzen lagunduk dieten alderdi guztietan, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoak, xedatzen duena betez.	*La empresa adjudicataria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.*
Hizkuntza ez-sexista erabili beharko du enpresa adjudikaziodunak bere agiri guztietan, publizitatean, irudietan, edota kontratua gauzatzeko kariaz sortzen den material orotan; eta emakumea baztertzen duen irudi oro eta estereotipo sexista oro saihestu beharko du; horrez gain, berdintasun-balioekin, presentzia orekatuarekin, aniztasunarekin, erantzunkidetasunarekin eta genero- eta identitate-pluraltasunarekin lotutako irudia sustatuko du.	*La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.*
Sexu-jazarpena eta lanean sexu-arrazoiengatik inor jazartzea prebenitzeko neurriak hartzen direla bermatu behar du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak, kontratuak gauzatu ahal izateko hamar langile baino gehiago eskatzen dituenean.	*La empresa o entidad adjudicataria garantizará la adopción de medidas para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo en aquellos contratos cuya ejecución requiera más de diez personas trabajadoras.*

16.3.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren esparruko betebeharrak	*16.3.- Obligaciones relativas a la gestión de permisos, licencias y autorizaciones.*
